

# Plater garbiak



**ANUNTXI ARANA**  
ANTROPOLOGOA

“**H**ondakinik ez platerean!”. Hori zen kontsigna gure txikitako otorduetan. Janariak zeozer sakratu bazukeen, batez ere ogiak; lurrera erori eta, jasotakoan, musua eman behar zitzaion. Harik eta adin zozoan mamia baztertzeke moda etorri zen arte, lodiarazten zuelakoan. Adin nagusian ere badira berdin jokutzen dutenak. Osterantzean, zer goxoa ogi matorra saltsan bustia. Lastima, etxean bakarrik egitekoa da, publikoan ez ei da polita. Are gehiago, batzuek diote jaki zerbait platerean lagatzea dela dotoreena, ez dezala inork pentsa goseak hamikaturik garela.

Txundidura zen, halere, ikaskide bategen, aberatsa bera, kafetegian pastela eskatu eta erdia jan gabe bertan uzten zuenean; eta aldamenean zeuden mizkin frustratuetarik bat ere ez ausartzen zati hura ahoratzen, ez zelako holakorik egiten, nahiz eta poltsikoan pezetarik eduki ez kafea goxoki batez laguntzeko. Dirua holako maneran botatzeak, horrek zuen eskandalu ematen, ordurako ez baitzen gehiago bekatu janaria galaraztea.

Askoz geroago, lagunaren lagun bategen, afaldu bitartean, serio azaldu zuen

Janariak zeozer sakratu bazukeen, batez ere ogiak; lurrera erori eta, jasotakoan, musua eman behar zitzaion. Harik eta adin zozoan mamia baztertzeke moda etorri zen arte

bere praktika bikaina: ez zuela inoiz jaten zerbitzatzen zioten guztia, aszesi hori eskatzen zion gogoak gorputzari, silueta zolia atxikitzearen. Esan eta egin: eskatu gabe zati txikiagoa ekar ziezaiotela, hantxe utzi zuen behiki-zerra puska, eta erakutsi nola nagusitzen ahal zaien apetitu eragabeari.

Antzeko moduan gure *progreen* hainbat jai jatorretan: plater bakoitzean saiheski bana, eta laster erdia zakar ontzira. Hori gaur egunean, dagoeneko denek dakigunean munduko eta hemengo gosea zer den, ezaguna denean haragia minetan hazia eta minetan hila izan dela eta haren ekoizpenak zer inpaktu handia duen ingurumenean. Eta alferrik suntsitu.

Azken urte hauetan janariaren xahuketa amaigabea murrizteko neurriak abiatu dira, adibidez, udal zenbaitek herritarren esku ezartzen dute eskola jantokietako soberakina. Profesionalek ere balukete zer egin; ostatuetan plater beteak atera orde erretiluan zerbitzatu ko balute, hondarrak balioztatzen ahal ko lituzke.

Bestela, bezeroen xelebrekeriak ere baditugu. Hollywood-eko izar baten haurrak, nerabea hain segur, gurasoak nardatzeko jatetxean azietak miazkatzten omen zituen. A zer amets glamourosa guretzat Donostiako zine festibalean Maria Cristinako apopiloak ikusiko bagenitu, mihiaz ez bada ere, ogiaz azken zukuak biltzen eta platerak garbi garbiak uzten, dotorezia gorenean. ●



## ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK  
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • [www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)